

**Euskal Herriko Unibertsitatea
Letren Fakultatea
Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa Saila**

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

GRADU AMAIERAKO LANA

ALPEEN BARRENEAN BAKARTUTA: *WALLISERDEUTSCH*

Maddi Garazi Kintana

Tutorea: Erich Huber

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekaina

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honek alemanaren aldaera sinkroniko bat aztertzea du helburu, zehazki, Valais edo *Wallis* kantonamenduko alemanaren dialektoa. Gai oso orokorra denez, haren egoera soziolinguistikoan jarri da fokua, azterketa linguistiko batean gehiegi sartu gabe. Horrela, aldaera horren ikuspegi orokor bat eman da, hizkuntza eta aldaera batek izan ditzakeen esparru desberdinetan. Norabide desberdinetatik heldu liteke gaia, baina lan honetan alde soziolinguistikoaz gain, lotura kulturalak eta historikoak ere egin dira, izan ere, nabarmentzeko garrantzitsuak dira, eta ezin daiteke ulertu aldaeraren egungo egoera aspektu horiek kontuan hartu gabe. Horregatik, helburua ez da soilik aldaera linguistikoki aztertzea, baizik eta haren egoeraren atzean dagoen arrazoia zein den jakitea: batetik, herrialde eleaniztun batek *Walliseko* alemana nola baldintzatzen duen aztertzea, eta bestetik, etorkizuna zein izan daitekeen ondorioztatzea, zenbait irtenbide proposatuz. Lehenik eta behin, sarrera bat eskaini diogu gaiari, irakurlea geografikoki koka dadin, eta abiapuntu bat eman ahal izateko. Jarraian, lanari ekiteko erabilitako metodologia azaldu da; horrela, erabilitako bibliografia mota eta hura aukeratzeko arrazoiak argitu dira. Gaiari heltzeko, ikuspegi orokor batetik Suitzako administrazio-sistema eta hizkuntza-sistema zeintzuk diren argitu da, orokorretik zehatzera lan egin baita. Ondoren, sakondu egin da *Wallisek* bizi duen baldintza geografiko eta kulturean, eta bertako egoera administratiboa eta linguistikoa azaldu da. Horretarako, espazio eleaniztunen eta diglosiaren inguruko gogoeta bat burutu da, eta, beraz, diglosia eta *Walliseko* egoera harilkatu dira. Gero, *Walliseko* aldaeraren eta *Wallis* kantonamenduaren historian sakondu da: historian zehar hiztunek izandako garapena eta migrazioa, eta inguruko kulturekiko lotura garrantzitsuek zelako garrantzia izan duten hiztun talde honen identitatea finkatzerakoan. Eremu soziala landu ostean, hizkuntza aztertuko da eta munduko hizkuntzen artean non kokatzen den azalduko da: germaniar hizkuntzekin zer nolako harremana duen zehaztuko da. Behin hizkuntzen artean kokatuta, ereduak eman dira, eta aleman estandarrekin alderatu da hizkuntzaren adibide grafiko bat eskaintzeko asmoarekin. Hizkuntzaren ADN a aztertu eta gero, gaur egungo egoera zein den azaldu da, zein den hiztunen egoera *Wallisen* eta zein den hizkuntzaren joera, horien artean ea estandarrik dagoen. Ondorio gisa, atal bakoitzean landu dena biribildu da, eta hiztunen egungo egoerari buruz gogoeta egin da, egoera hori eragin duten arrazoiak zein diren bilduz eta *Walliserdeutsch*-ak izan dezakeen etorkizuna aurreikusten saiatuz. Amaitzeko, irtenbide batzuk proposatu dira hizkuntzak garapen iraunkorra izan dezan.

ABSTRACT

Diese Bachelorarbeit hat es zum Ziel, eine synchrone Varietät des Deutschen zu analysieren, nämlich den deutschen Dialekt des Schweizer Kantons Wallis. Da es sich um ein sehr umfassendes Thema handelt, liegt der Schwerpunkt der Arbeit auf dessen soziolinguistischer Situation, ohne sich dabei zu sehr in eine linguistische Analyse zu vertiefen, sondern mittels einer globalen Vision dieses Dialekts in den verschiedenen Bereichen, in denen eine Standardsprache und eine Varietät zusammen vorkommen. Man kann sich dem Thema aus verschiedenen Richtungen nähern; so werden in dieser Arbeit neben dem soziolinguistischen Aspekt auch der kulturelle und historische Kontext hervorgehoben, weil die gegenwärtige Situation des Dialekts ohne Berücksichtigung dieser Aspekte nicht verstanden werden kann. Es geht also in erster Linie nicht darum, die Varietät rein linguistisch zu beschreiben, sondern vielmehr zu untersuchen, was der Grund für ihre Situation ist, wie die Mehrsprachigkeit der Schweiz das Walliserdeutsche bedingt, und schließlich, daraus abzuleiten, wie die Zukunft aussehen könnte, und Lösungen vorzuschlagen. Zunächst ist dem Thema eine Einleitung vorangestellt, damit der Leser sich geographisch orientieren kann und um ihm einen Ausgangspunkt zu bieten. Als Nächstes erläutern wir die Methodik, mit der die Arbeit realisiert wurde, und klären die Art der verwendeten Bibliographie und die Gründe für ihre Auswahl. Um das Thema aus allgemeiner Sicht zu behandeln, wird das Verwaltungs- und Sprachsystem der Schweiz erläutert, wobei vom Allgemeinen zum Spezifischen vorgegangen wird. Danach wird die geographische und kulturelle Situation des Wallis beschrieben und seine administrative und sprachliche Situation dargestellt. Zu diesem Zweck folgt eine Reflexion über mehrsprachige Gesellschaften bzw. Territorien und das Konzept der Diglossie, wobei wir dieses mit der Situation im Wallis in Verbindung bringen und auf die Geschichte des Kantons und dessen Sprache(n) eingehen: die Entwicklung und Migration der Sprecher im Laufe der Geschichte und die Bedeutung, die der Kontakt mit den Grenzkulturen bei der Bildung ihrer Identität hatte. Nach der Beschreibung des sozialen Kontextes wird die sprachliche Varietät selbst analysiert und erklärt, wo sie sich unter den Sprachen der Welt und im Verhältnis zu den germanischen Sprachen befindet. Nachdem wir sie linguistisch eingeordnet haben, führen wir kurze Texte an, um den Dialekt mit der deutschen Standardsprache zu vergleichen und ein anschauliches Beispiel für die Varietät zu bieten. Nach einer DNA-Analyse des Dialekts wird dessen aktuelle Situation und jene der Sprecher im Wallis erläutert und über die voraussichtliche weitere Entwicklung reflektiert. Darüber hinaus

wird untersucht, ob es Bestrebungen gibt, eine Standardvarietät zu entwickeln, die mittels Rechtschreibnormen auch deren schriftlichen Gebrauch ermöglichen würde. In den Schlussfolgerungen werden die einzelnen Abschnitte zusammengeführt und eine Reflexion über die aktuelle Situation der Sprecher des Walliserdeutschen angestellt, wobei versucht wird, die Zukunft dieser sprachlichen Varietät vorherzusagen und einige Maßnahmen für ihre nachhaltige Entwicklung vorzuschlagen.

AURKIBIDEA

1.	Sarrera	6
1.1.	Metodologia	7
2.	Suitzako ikuspegi eta banaketa linguistikoa	8
2.1.	Hizkuntza ofizialak	9
2.2.	Suitzako eremu alemaniarra	11
3.	Wallis kantonamendua	13
3.1.	Oberwallis	15
3.2.	Hizkuntza ofizialak	16
4.	Diglosia	18
4.1.	Zer da diglosia?	18
4.2.	Wallisen egoera diglosikoa?	18
5.	Walliseko alemana	20
5.1.	Historia eta biztanleriaren garapena	20
5.2.	Inguruko kulturekin harremana	21
5.3.	Dialektoa	22
5.3.1.	Sailkapena hizkuntza germaniarren artean	23
5.3.2.	Hizkuntzaren deskribapena	24
5.4.	Alderaketa	26
6.	Gaur egungo Walliseko alemanaren egoera	28
6.1.	Batasuna, estandarra... Zer?	29
7.	Ondorioak	30
8.	Bibliografia	33

IRUDIEN ETA TAULEN AURKIBIDEA

Irudia 1: Karten der Schweiz (map.geo.admin.ch)	8
Irudia 2: Suitzako banaketa linguistikoa	10
Irudia 3: Wallisen kokapena Suitzan (map.geo.admin.ch)	13
Irudia 4: Oberwallisen kokapena (https://hochbreitband.ch).....	15
Irudia 5: Walliseko banaketa linguistikoa (http://www.axl.cefan.ulaval.ca/)	16
Irudia 6: Walser herriaren migrazioa (http://www.walser-alps.eu/)	21
Irudia 7: Alemaniako aldaeren mapa (König eta Paul 2020: 230).....	23
Irudia 8: Walliserdeutscharen taxonomia	24
Taula 1: Aleman estandarraren eta Ried-Brigeiko aldaeraren alderaketa	26
Taula 2: Hilabeteen izenak	27
Taula 3: Eguneroko hitzak.....	27

1. Sarrera

Gradu Amaierako Lan honek Valais edo *Wallis* kantonamenduko alemanaren dialektoa aztertzea du helburu. Gai oso orokorra denez, haren egoera soziolinguistikoa jarriko da fokua, baina, horretaz gain, aldaera horren ikuspegi orokor bat emango da, hizkuntza eta aldaera batek izan ditzakeen esparru desberdinetan. Norabide desberdinetatik helduko zaio gaiari: horretarako, lotura kulturalak eta historikoak egingo dira, aldaeraren egungo egoera ulertzeko saiakera batean. Helburua ez da soilik aldaera linguistikoki aztertzea, baizik eta haren egoeraren atzean dagoen arrazoia zein den jakitea, hala nola herrialde eleaniztun batek nola baldintzatzen duen *Walliseko* alemana aztertzea, eta azkenik, etorkizuna zein izan daitekeen ondorioztatzea, eta irtenbideak proposatzea.

Valais Suitzako kantonamendu bat da eta Suitzako hego-mendebaldean kokatuta dago: hegoaldean Italiarekin egiten du muga, Aostako Harana eta Piemonterekin, eta hego-mendebaldean Frantziarekin du muga, Auvernia-Rhône-Alpeak eskualdearekin; iparraldean, aldiz, Suitzako beste kantonamendu batzuek inguratzen dute: Vaud, Berna, Uri eta Ticino. Haren kokapen orografikoa ere berezia da, Mendebaldeko Alpeen erdigunean baitago, bailara malkartsuz beteta. Rhône ibaiak bailara glaziarrak zeharkatzen ditu, eta gero Léman aintziran isurtzen da, kantonamenduaren iparraldean. Kantonamendu honen kokapena estrategikoa da oso, eta horren ondorioz, mugaldekoko kantonamendu bat bezala kontsideratzen dute.

Herrialde eleaniztuna da Suitza, eta lau dira hizkuntza ofizialak: frantsesa, alemana, italiara eta erromantxera. Aleman hiztunak dira gehiengoa, kantonamenduen gehiengoan hitz egiten baita. Ondoren, hiztun kopuru aldetik frantsesa, italiara eta erromantxera daude. *Wallis*¹ kantonamendu elebiduna da: alemana eta frantsesa dira hizkuntza ofizialak eta administratiboak. Gehiengoa frantses eleduna da, eta haren hiriburua, Sion, eremu frankofonoaren parte da. Alemana da bigarren hizkuntza nagusia, eta ondoren, italiara eta erromantxera hiztunen kopuru txiki bat dator, nahiz eta azken biak ez diren kantonamenduko hizkuntza ofizialak.

Oberwallis du izena kantonamenduko zonalde alemanak, eta frantsesa eta alemanaren arteko muga linguistikoa Raspille ibaiak ezartzen du, eta ibai horretatik ekialdera geratzen dena da Haut-Valais edo *Oberwallis*. Brig-Glis eta Visp hiriak dira zonalde horretako hiririk handienak, baina orografia oso menditsua denez, zaila da biztanleria handia duten herriak aurkitzea.

¹ Valais kantonamendua hemendik aurrera *Wallis* izenarekin agertuko da, haren izen alemana.

Wallisen hitz egiten den alemanaren aldaera ez da aleman estandarra (*Hochdeutsch*)². Bertan hitz egiten den aldaera, ordea, Suitzako alemana (*Schwyzertütsch*) da: adar alemanikotik datorrenez, esan liteke hizkuntza alemaniko bat dela. Suitza osoan zehar dialekto eta aldaera desberdin ugari daude, baina *Wallis* kantonamenduko alemana, hau da, *Walliserdeutsch*, hizkuntza alemanikoetako berezko talde bat da, bazterrean egoteak eraginda akaso.

Mendi oso altuen artean dagoen hiztun komunitatea denez, isolamendu handia jasan dute, eta, ondorioz, beste Suitzako dialektoetatik aski urrundu egin da, eta ulermen zailtasun handiak izaten dituzte beste aleman hiztunekin.

Bestetik, *Walliseko* biztanleen irudia Suitzan oso estereotipatua dago, harrotasunez betetako jendea bezala ezagutzen dituzte, tradizioez harro daudenak. Hala ere, dagoen estereotipo nagusia, beharbada, hizkeraren “ulergaitasuna” litzateke. Termino subjektiboa da oso, baina suitzar askok ez dute gaitasuna dialektoa ulertzeko, eta, beraz, estereotipo hau jaso dute, bailara malkartsuetan isolatutako herri gisa.

Lan honetan *Wallis* den eremu berezia aztertuko da eta, walser herriaren ondorengo kulturala den herriari buruzko hainbat gako argituko dira: horien artean garrantzitsuena hizkuntza da. Beraz, zer da *Walliserdeutsch*-a?

1.1. Metodologia


Lan hau burutzeko metodologia bi gaketan laburbildu daiteke: informazio pilaketa eta informazioaren analisisa. Lehenik eta behin, gaiaren inguruko bibliografia sorta bilatzeari ekingo diot, eta gero bibliografia sailkatuko dut lana osatzen duten atal desberdinetan. Horretarako, Estatistika Bulego Nazional eta Kantonalera joko dut eta Suitzako aldaeraren inguruko materiala eta *Walliserdeutscharen* inguruan idatzitako lanak eta baliabideak bilatuko ditut.

Material pilaketaren ostean, ageri diren datuak eta informazioa analizatuko ditut, eta horrela egin ahal izango dut hizkuntzaren deskribapen soziolinguistikoa, baita bere ezaugarrien eta testuinguruaren azterketa ere, hizkuntzaren irudi osatu bat izan ahal izateko buruan, eta haren egoeraren inguruko hausnarketa prozesu bat abiatzeko.

² *Hochdeutsch* terminoak bi esanahi ditu, bata hizkuntza germaniarrak sailkatzeko (hizkuntzalaritza arloan) eta bestea hizkuntzaren estandarrari erreferentzia egiteko. Hemen, ordea, hizkuntzaren eredu estandarrari buruz hitz egiten ari naiz.

2. Suitzako ikuspegi eta banaketa linguistikoa

Suitza Europa erdialdean dagoen herrialde bat da. Berna du hiriburua, baina hiri handiena Zürich da. Herrialdearen orografia oro har menditsua da, Alpeek zeharkatzen baitute hegoalde osotik, eta mendebaldean Jura mendiak aurki ditzakegu. Suitza kostarik gabeko herrialde bat da, eta hurrengo herrialde hauek egiten dute muga berekin: Alemania, Austria, Liechtenstein, Italia eta Frantzia. Inguruko herrialde guztiek eragin oso handia izan dute herrialde honen osieran eta izaeran (*Schweiz Tourismus*, d.g.³).



Irudia 1: Karten der Schweiz (map.geo.admin.ch)

Suitza estatu federal parlamentario bat da, eta bere izen osoa Suitzar Konfederazioa da (*Confédération Suisse* frantsesez eta *Schweizerische Eidgenossenschaft* alemanez). Estatu federala 26 kantonamendutan banatuta dago, eta kantonamendu bakoitzak bere legeak, administrazioa, sistema eta hizkuntza ditu. Kantonamenduak, aldiz, 143 barrutitan banatuta daude, baina *Le Parisien*-en (d.g.) hiztegiaren arabera badaude barrutirik gabeko kantonamenduak eta erdi-barrutiak dituzten kantonamenduak, *Wallis* esate baterako. Barrutiak, aldi berean udalerritan banatuta egon daitezke, nahiz eta ez izan barruti guztien kasua. Azkeneko datuen arabera Suitzan 2222 udalerrri daude (Bundesamt für Statistik (BFS), d.g.).

Herrialdearen historia bitxiaren ondorioa da hori, kantonamendu bakoitza independenteki sartu baitzen Konfederazioaren barruan. Beraz, horrek eragin zuen Suitzan fede, kultura, hizkuntza eta ohitura anitzeko jendea bizitzea, eta gaur egun herrialdeak duen egitura horren isla da (*Geschichte der Schweiz*, d.g.).

³ Datarik gabe (d.g.).

Kantonamenduak hizkuntza eremu desberdinetatik etorri zirenez, (batzuk Alemaniari printzerrietatik, besteak Italiari lurraldeetatik) hizkuntza politika egoki bat finkatu behar izan zuten. Horregatik, Suitza herrialde eleaniztuna da, kantonamendu guztietako hizkuntza ofizialak hartzen baititu ofizialtzat. Lau dira hizkuntza ofizialak: alemana, frantsesa, italiara eta erromantxera (BFS⁴, d.g.).

2.1. Hizkuntza ofizialak

Beraz, alemana, frantsesa, italiara eta erromantxera dira hizkuntza ofizialak. Horren arabera, estatu mailako dokumentu eta prozedura guztiak hizkuntza horietan eskaini behar dira legez. Hala ere, estatu mailan ofiziala izateak ez du esan nahi kantonamendu guztietan hala denik: kantonamendu gehienak elebakarrak dira eta bertako administrazioa soilik kantonamenduko hizkuntza ofizialean arituko dira. Zürich kantonamenduan, esate baterako, alemana da soilik ofiziala. Hala ere, badaude kantonamendu elebidunak eta hirueledun bat. Grisonian (*Graubünden* alemanez) alemana, italiara eta erromantxera dira hizkuntza ofizialak, baina eremu linguistikoak herrien eta bailaren arabera sailkatzen dira. Kantonamendu elebidunen kasuan, hiru dira frantsesa eta alemana hizkuntza ofizialtzat dituztenak: *Wallis*, Friburgo eta Berna (BFS, d.g.).

Hiztunen ehunekoak zehazterako garaian, galdeketa bat egiten da Suitza mailan, non hiztun bakoitzak bere hizkuntza nagusia⁵ zein den hautatu behar duen. Esate baterako, 2000 urteko galdeketa hurrengo galdera egin zuten: «*Welche ist die Sprache, in der Sie denken und die Sie am besten beherrschen?*» (itzulpena: *zein hizkuntzatan pentsatzen duzu eta zein menderatzen duzu hoberen?*). Beraz, parte hartzaileek Suitzako lau hizkuntza nagusietako bat hautatu behar zuten, deskribapenari hoberen zegokiona, alegia. Lau hizkuntza nazionaletako bat bakarra izan ezean, hizkuntza zehaztu eta «hizkuntza ez-nazional» deituriko kategorian sailkatzen zen. Hitz egiteko gai ez ziren umeen kasuan, amaren hizkuntza hautatzen zen. Zailtasunak zeuden eleaniztunen kasuan, eta kasu horretan, hizkuntza bakarra hautatu behar zuten (Lüdi eta Werlen, 2005: 7).


Azkeneko datuetan, hau da, 2018an Bundesamt für Statistik erakundeak argitaratu zituen datuak oinarri hartuta, hizkuntza nagusien nagusitasuna zein den ikus daiteke. Gaur egun, Suitzan hiztun gehien dituen hizkuntza nagusia alemana da, zehazki,

⁴ Bundesamt für Statistik.

⁵ 1980 urtera arte ama hizkuntza zein zen galdetzen zen.

biztanleriaren % 62,2-ak du hizkuntza nagusi gisa. Jarraian, hurrengo hizkuntza nagusia frantsesa da, hau da, biztanleriaren % 22,9-ak du hizkuntza nagusi moduan. Gero, italiera da biztanleriaren % 8,0-aren hizkuntza nagusia; eta azkenik, erromantxera, biztanleriaren % 0,5-aren hizkuntza nagusia.

Hala ere, lau hizkuntza nagusi nazional horien banaketa ez da guztiz uniformea Suitza osoan zehar, beheko irudian ikus daitekeen moduan. Aldiz, lau hizkuntza eremu nabarmentzen dira, eta eremu bakoitzean hizkuntza bat da nagusia. Bundesamt für Statistikek (d.g.) eremuak horrela definitzen ditu: hizkuntza nagusia da bertako udalerrietan biztanleriak maiztasun handienarekin hitz egiten duen hizkuntza. Egoera horren salbuespen toki gutxi batzuk besterik ez dira, Konstituzioaren arabera lau kantonamendu dira eleaniztunak: Berna, Friburgo, *Wallis* eta Grisonia. Hala ere, eremuak zehazterakoan udalerrien arabera egiten da, eta gerta daiteke udalerria eremuz aldatzea biztanleriaren bilakaerarekin batera (adibidez, Grisonian erromantxerak bizi duen hizkuntza egoera dela eta, udalerriak eremu erromantxetik alemanera pasa dira). Zentzu horretan posible da tokiko hizkuntza aldi berean hizkuntza nazionala izatea edo ez. Eremu erromantxera izan ezik, beste eremuak orokorrean homogeenak dira, eta hizkuntzaren eremuaren gehiengo zabalean tokiko hizkuntza da dagokion hizkuntza. Eremu alemanean alemaniarrek eta austriarrak ez dira kontuan hartzen, frantsesak eremu frantsesean eta italiarrak eremu italiarrean bezala. Aldiz, eremu erromantxeran bai hartzen direla kontuan erromantxera hitzun moduan ladinoa eta friulera ama hizkuntza dutenak (Lüdi eta Werlen, 2005).



Irudia 2: Suitzako banaketa linguistikoa (BFS)

Kantonamenduak, beraz, hizkuntza eremu batean daude eta tokiko hizkuntza da hizkuntza ofiziala bertan (aipatutako salbuespenak izan ezik). Eremu alemanean 17 kantonamendu daude: Uri, Appenzell Innerrhoden, Appenzell Ausserrhoden, Nidwalden, Obwalden, Schwyz, Luzerna, Turgovia, Solothurn, Sankt Gallen, Schaffhausen, Basilea Herrialdea, Basilea Hiria, Argovia, Glaris, Zug eta Zürich. Eremu frantsesean 4 kantonamendu daude: Jura, Neuchâtel, Vaud eta Geneva. Eremu italiarrean kantonamendu bakarra dago: Ticino. Salbuespenak 4 dira: *Wallis*, Berna, Friburgo eta Grisonia. Eremu erromantxea Grisonia kantonamenduaren zati bat besterik ez da (Lüdi eta Werlen, 2005).

Nahiz eta hizkuntza nazionalak izan biztanleriaren % 93,6-aren hizkuntza nagusia, badago beste % 6,4 bat hizkuntza ez-nazionalak dagokiona. Hots, azkeneko horien hizkuntza nagusia ez da ofiziala inon Suitzan. Azken datuen arabera, hurrengo hauek dira hiztun gehien zituzten hizkuntza ez-nazionalak Suitzan: ingelesa, portugesa, albaniera, serbokroaziera, gaztelania eta, gero, gainerako hizkuntza guztiak. Migrazioaren ondorio dela ondoriozta daiteke, hizkuntza komunitate horiek baitira migratzaileen talde handienak (BFS, d.g.).

2.2. Suitzako eremu alemaniarra

Suitzan, beraz, alemana da hiztun gehien dituen hizkuntza. 2018ko datuen arabera, biztanleriaren % 62,2-ak zuen hizkuntza nagusizat alemana (BFS, d.g.).

Baina Suitzan auzi bat dago alemanarekin: Suitzaren eremu alemanean bi aleman aldaera erabiltzen dira. Lehenengoa aldaera aleman estandarra da, *Hochdeutsch*⁶ bezala ezagutzen dena, eta bigarrena Suitzako aleman dialektoa da, hainbat azpidialektotan sailkatzen dena era berean.

Suitzan alemanaren aldaera estandarra *Schriftdeutsch* («idatzitako alemana») izenarekin ezagutzen da, eta Suitzako dialektoa, aldiz, *Schwyzertütsch* («Suitzako alemana») izenarekin. Orokorrean, jendeak *Schriftdeutsch* erabiltzen du bai idazterako eta bai irakurtzerako garaian, baina bere ahozko erabilera oso mugatua da: soilik eskoletan, prentsan eta diskurtsoetan erabiltzen da. Hiztunen amankomuneko ahozko aldaera *Schwyzertütsch* da, eta hura da hizkuntza arrunta klase sozial guztietan. Hala ere, oso gutxitan idazten den aldaera da, esate baterako, gazteek idazten dute elkar komunikatzeko bakoitzak nahi duen ortografiarekin. Hala ere, posible da iragarkiak edo

⁶ Hemen terminoa ez da izen bereko hizkuntza germaniarrak sailkatzeko termino homonimoarekin nahastu behar.

obituarioak *Schwyzertütsch*-ean idatzita aurkitzea. Beraz, esan daiteke idazteko orokorrean *Schriftdeutsch* erabiltzen dela, eta adibide gisa daude suitzar idazle gehienak: aldaera estandarra darabilte haien idazkietan.

Horrelako adibideetan, irrati edo telebista esatariek esan beharrekoa dialektoan idaztea eskatzen da, *Schriftdeutsch* eta *Schwyzertütschen* arteko hibridoak ekiditeko, hizkera hibrido horiek gaizki ikusita baitaude (Siebenhaar eta Wyler, 1997: 16).

Lüdik eta Werlenek (2005: 36) aztertu bezala, 2000 urteko galdeketaren arabera, eremu alemaneko familietan biztanleriaren % 80,5-ak eta suitzarren % 90,8-ak zerabilen dialektoa. Biztanleriaren % 9-ak zerabilen garaian aleman estandarra familian. Gainera, eremu alemaneko biztanleriaren % 82,5-ak garaian bakarrik Suitzako alemana hitz egiten zuen.

Esate baterako, oso garrantzitsua da Suitzako ez-nazionala izanez gero eta Suitzako eremu alemanean biziz gero Suitzako alemana hitz egitea. Hori baldintza garrantzitsua da gizartean onartua izateko eta hiritartasuna eskuratu nahi izanez gero, kontuan hartuko den ezaugarri bat da. Beraz, hura menderatzea eta erabiltzea garrantzi handikoa da Suitzako eremu alemanean (Siebenhaar eta Wyler, 1997: 11). Hala ere, biztanleria ez-nazionalaren artean aleman estandarraren eta Suitzako alemanaren erabilera uniformeagoa da, eta familian dialektoaren erabilera bigarren plano batean geratzen da (Lüdi eta Werlen, 2005: 37).

Eremu alemaneko suitzarrek, gainera, ez dute bereziki gogoko *Schriftdeutsch* erabiltzea, eta ahal duten kasu gehienetan hautatuko dute aldaera erabiltzea. Hau da, aleman estandarra ez hitz egiteko arrazoiak aurkituko dituzte etengabe.

Bi arrazoi nagusi daude azaldu dezaketenak *Schriftdeutsch*-arekiko sentitzen duten atxikimendu falta: batetik, eskolarekin lotzen duten hizkuntza da, non akatsak eta hitz egiteko gaitasuna epaitzen den; bestetik, orokorrean suitzarrek ez dute sinpatia gehiegirik adierazten alemanekiko. Alemanen eta suitzar alemanen arteko harremanetan, maiz suitzarrek gutxiespen sentimendua izaten dute, alemanen ahozko gaitasuna haiena baino hobea dela sentitzen baitute. Horren zergatia zera da, suitzarrek aleman estandarra idazten menperatzen dutela batez ere, eta beraz, zailtasunak izaten dituztela eguneroko hizkuntza hizkera «formal» eta estandar horretan erabiltzeko.


Baina suitzar dialektoa ez da aldaera zurrun bat: hainbat azpidialektotan banatuta dago, zeinak haien artean aski aldentzen diren ahoskeran, formetan eta lexikoan. Halako aldaera aniztasuna hain lurralde murriztuan egotearen arrazoa honakoa da: iraganean

Alpeen eta Alpeurreko zonaldeen arteko harremanak izateko zailtasunak. Horrek hiztun komunitate handiak sortzea eragotzi zuen (Siebenhaar eta Wyler, 1997).

Batasun ezak ere eragotzen du hizkera estandarrik ez egotea suitzar alemanean, ez baitago konbentziorik. Hala ere, proposamenak egon dira, adibidez, *Schwyzertütschi Dialäktschrift* (Dieth, 1986). Berak aldaeraren ezaugarri fonetiko nagusiak adierazi nahi zituen baina aldi berean irakurterraza izan behar zen alemaniar ortografia zekien ororentzat (Scherrer, Samardžić eta Glaser, 2019).

Hala ere, Suitzako alemana idazterakoan, gaur egun erabiltzen den terminoa *Schweizer Hochdeutsch* da. Helvetismoak onartzea da bere ezaugarri nagusia, hau da, Suitzan erabiltzen diren hitzak *Hochdeutsch*-aren barnean erabiltzea. Esate baterako, Alemaniako *Hochdeutschean Feldsalat* hitza *Schweizer Hochdeutschean Nüsslisalat* da. Suitzar dialektoaren aldaera desberdinak idazterako garaian, aldiz, ez dago inolako ortografia uniformerik, baina badaude printzipio batzuk mantentzekoak, garrantzitsuena: hitz egiten den moduan idaztea (hizkera fonetiko). Printzipio hori jende gehienak errespetatzen du. Beraz, azpidialekto bakoitzak idazteko modu propioa izango du (Elmiger, 2019: 54, 55).

2.3. Wallis kantonamendua



Irudia 3: Wallisen kokapena Suitzan (map.geo.admin.ch)

Wallis kantonamendua, lehenago aipatu bezala, Suitzako 26 kantonamenduetako bat da (BFS, d.g.). *Kanton Wallis* edo frantsesez *Canton du Valais* izena da kantonamenduaren izen ofiziala. Suitzar konfederazioaren parte da 1815. urtetik (*Kanton Wallis*, d.g.). Walliseko konstituzioaren 27. artikulua arabera Sion da hiriburua; beraz, bertan

daude Parlamentu Kantonala, Kontseilu Nagusia eta Epaitegi Kantonala. Kantonamendua barrutiz osatuta dago, eta barruti bakoitza, udalerriz. Kontseilu Nagusiaren esku geratzen da lurralde antolaketaren moldaketa (*Der Bundesrat*, 2017).

Roberto Schmidt da kantonamenduko presidentea 2017ko martxoaren 19tik, eta CSPO (*Christlichsoziale Volkspartei Oberwallis*; «Haut-Valaiseko herri-alderdi sozialkristaua») alderdiaren zerrenda burua zen (*Kanton Wallis*, d.g.).

Kantonamenduaren mugak hurrengoak dira: iparraldean, Berna eta Vaud kantonamenduekin egiten du muga; ekialdean, Uri eta Ticino kantonamenduekin; hegoaldean, Italiarekin, eta mendebaldean, Frantziarekin (*L'aménagement linguistique dans le monde*, 2019).

Alpeetan kokatuta dago kantonamendu osoa, beraz, kantonamendu alpetarra kontsideratzen dute *Wallis*. Kantonamendua Rhône ibaiaren sorlekutik Léman aintziraraino hedatzen da. Horregatik, askoren ustetan Rhône ibaia da kantonamenduaren bizkarrezurra, haren bailaran eraiki baitira hiri eta herrigune nagusiak; trenbideak, esate baterako, Rhône ibaiaren paralelo bat osatzen du (*Kanton Wallis*, d.g.). Kantonamenduko ekialdean hainbat glaziar daude, ezagunenetakoa beharbada Rhôneko glaziarra (*Rhonegletscher*) da, bertan jaiotzen baita Rhône ibaia (*Valais.ch*, d.g.).

Zenbaki adierazgarri batzuk: *Wallis* Suitzako 3. kantonamendu handiena da lurraldearen arabera, eta 9.a biztanleria kopuruaren arabera (*Kanton Wallis*, d.g.). Egun, 343.955 pertsona bizi dira *Wallisen* eta azken urteetako datuekin konparatuta biztanleriaren hazkundera % 0,7-koa izan da. Biztanleriaren zati handi bat ez da bertakoa, hau da, 78.076 edo % 22,69-a (Kantonales Amt für Statistik und Finanzausgleich, d.g.).

2018ko datuen arabera Sion da *Wallis* osoko hiririk handiena, 33.720 biztanlerekin (*Sion.ch*, d.g.). Sion da aldi berean Agglo Valais-eko gunerik garrantzitsuen. Agglo Valais zonalde proiektua *Wallis Centre*-n kokatuta dago, eta *Wallis* osoko biztanleriaren herena biltzen du bertan, 110.000 pertsona inguru 19 udalerritan banatuta (*Agglo Valais Central*, d.g.). Kantonamendua hiru eskualdetan banatuta dago: Bas-Valais, Valais Centre eta Haut-Valais edo *Oberwallis*⁷. Biztanleria gehiena Valais Centre-n metatzen da, bertan bizi baita *Walliseko* biztanleriaren % 39,8. Bas-Valais-en biztanleriaren % 35,9-a bizi da, eta *Oberwallis*-en biztanleriaren % 24,3. Lurraldearen hedaduraren arabera aldiz, alderantziz da, eta *Oberwallisek* du lurralde hedadurarik handiena,

⁷ Hemendik aurrera Haut-Valais-ri buruz hitz egiteko *Oberwallis* alemaneko terminoa erabiliko da.

zehazki kantonamenduaren erdia osatzen du. Eskualde bakoitza barruti desberdinetan banatzen da, eta barrutiak aldiz udalerrietan, 126 zehazki (*Kanton Wallis*, d.g.).

2.4. Oberwallis



Irudia 4: Oberwallisen kokapena (<https://hochbreitband.ch>)

Kantonamenduaren zatirik handiena da *Oberwallis* eskualdea, baina aldi berean biztanleriaren gutxiengoa bizi da bertan. Hau da, *Oberwallis* kantonamenduaren lurraldearen % 50,2-a da. *Wallis*eko biztanleriaren % 24,3-a bertan bizi da, hau da, 83.581 pertsona. Eskualdea lau barrutitan eta bi erdi-barrutitan banatuta dago: Goms, Ekialdeko eta Mendebaldeko Raron, Brig-Glis, Visp eta Leuk. Guztira barruti guztietan 63 udalerrri daude (*Kanton Wallis*, d.g.).

*Oberwallis*eko hiririk garrantzitsuenak, bere jarduera ekonomikoa oinarritzat hartuta, Visp da eta izen bereko barrutian dago (*L'aménagement linguistique dans le monde*, 2019), 2018ko datuen arabera 7950 biztanle zituen, baina hiririk handiena Brig-Glis da (Brig-Glis barrutian), eta 2018an 13.058 biztanle zituen (Kantonales Amt für Statistik und Finanzausgleich, d.g.).

Zermatt udalerria dago *Oberwallisen*, eta bertan dago kokatuta Suitzako tontorrik altuena Dufourspitze deiturikoa, Monte Rosa mendilerroan, eta 4634 metroko altuera du (*Zermatt.ch*, d.g.).

*Oberwallis*eko hizkuntza nagusia alemana da, eskoletan aleman estandarra ikasten da (*L'aménagement linguistique dans le monde*, 2019), baina egunero erabiltzen duten alemana *Walliserdeutsch* deitzen da, Suitzako alemanaren aldaera bat dena, eta aldaera hitz egin ezean, oso zaila da ere aleman hiztunentzat ulertzeko. Alemanaren aldaera

horrek oso ezaugarri bereziak ditu, eta ez dira uniformeak, tokiaren arabera aldatzen baitira (*Walser in den Alpen*, d.g.).

2.5. Hizkuntza ofizialak

Walliseko Konstituzioa 1907ko martxoaren 8an jarri zen indarrean, eta bere 12. artikuluan zera dio:


Art.12

1. Die französische und die deutsche Sprache sind als Landessprachen erklärt.
2. Der Grundsatz der Gleichberechtigung beider Sprachen soll in der Gesetzgebung und in der Verwaltung durchgeführt werden.

(*Der Bundesrat*, 2017)

Beraz, frantsesa eta alemana hizkuntza nazional moduan aitortzen dira, eta legegintzak eta administrazioak bi hizkuntza horien parekotasuna bermatu behar dute. Gaur egun konstituzio hori dagoenez indarrean, artikulua hori mantentzen da. Beraz, 1907tik aurrera ofizialki *Wallis* kantonamendu elebiduna izan da (*Der Bundesrat*, 2017). Suitzako lehenengo kantonamendu elebiduna izan zen (Meune, 2010: 61).

Suitzako hiru kantonamendu elebidunetako bat da *Wallis*. Bi hizkuntza ofizialak alemana eta frantsesa dira (Lüdi eta Werlen, 2005: 13). Frantsesa Bas-Valaisen eta Centren hitz egiten da, eta alemana *Oberwallisen* (Meyer, 1992: 126).



Irudia 5: Walliseko banaketa linguistikoa (<http://www.axl.cefan.ulaval.ca/>)

Biztanleriaren gehiengoa zati frantsesetan bizi da, eta, ondorioz, hiztun gehien dituen hizkuntza kantonamenduan frantsesa da. Frantsesa *Walliseko* biztanleen % 68,2-aren hizkuntza nagusia da 2018ko azken datuen arabera. Alemana da bigarren hizkuntza nagusia, baina zenbakia frantses-hiztunena baino askoz murriztagoa da, biztanleriaren % 24,9-aren hizkuntza nagusia baita. Harrigarria da, datuetan hirugarren hizkuntza nagusi bat ageri baita, baina ez da Suitzako tokiko hizkuntza, ez eta kantonamenduko

hizkuntza ofiziala ere, aurretik aipatutako biak baitira *Walliseko* hizkuntza ofizialak. Hiztun gehien dituen hirugarren hizkuntza portugesa da, biztanleriaren % 8,8-aren hizkuntza nagusia baita, hain zuzen ere (*Kanton Wallis*, d.g.).

Nahiz eta kantonamendua elebiduna izan, kantonamenduko eskualdeak ez dira elebidunak guztiz. Esate baterako, *Oberwalliseko* barrutien hiztunen datuen arabera egoera Suitzako aleman hiztun elebkarreko landa eremuetakoaren oso antzekoa da, hau da, bertan alemana da hizkuntza nagusia eta bakarra. Visp barrutian desberdintzen da hori, bertan industria eta turismo handia dagoelako. Eskualde frankofonoetan berdina gertatzen da, eta soilik Sierre eta Sion barrutietan ez da gailentzen frantsesa hainbeste, gainera, aleman hiztunen gutxiengo bat dago (Lüdi eta Werlen, 2005: 95, 96, 97).

Muga linguistikoa Sierre eta Leuk udalerrien artean dagoen Pfynewald basoak markatzen du XXI. mendean: ekialdean alemana hitz egiten da, eta mendebaldean, frantsesa (Truffer, 2018). Hala ere, alde bakoitzeko hiriek eta herriek orokorrean bi izen izan ohi dituzte, bat alemanez, eta bestea, frantsesez (*Visp/Viège*) (*L'aménagement linguistique dans le monde*, 2019). Izenaz gain, muga linguistikoko horretan dauden udalerrri batzuk ez dira guztiz frankofonoak edo germanofonoak; esate baterako, Salgesch edo Varen udalerrriak nahiz eta *Oberwallisen* kokatuta egon, frankofonoak kontsideratzen dira. Hori bat dator azken urteetan eman den aleman hiztunen jaitsierarekin, joera frantses hiztunek gora egitea baita (Meyer, 1992: 139). Aldaera horren adibidea ere Sierre udalerrria da. 1920 urtera arte *Oberwallisen* parte zen, lehenago bertan alemana baitzen hizkuntza nagusia, baina XX. mende hasieran frantsesak hartu zuen gain (Lüdi eta Werlen, 2005: 96).

Nahiz eta frantsesa eta alemana izan gaur egun tokiko hizkuntza ofizial bakarrak, egia da beste tokiko hizkuntza bat ere badagoela: frankoproventzera. Zehazki, frankoproventzera valaisiarra (*valaisan*) da bertako aldaera. *Wallis* romandoan⁸ hitz egiten da hizkuntza hori, eta Rhône ibaiko bailara bakoitzean desberdin hitz egiten da, bana zoritxarrez galtzeko arriskuan dago (Berchtold et al., 2019).

Eskualde germanofonoan, aldi berean, hizkuntza ofiziala *Hochdeutsch* da, baina bakarrik idazteko erabiltzen da, bertako hiztunek *Schwyzertütschen* aldaera batean mintzatzen direlako: *Walliserdeutsch*. Hizkuntza bizia da kantonamenduan, eta Suitza osoan bezala *Hochdeutsch* erabiltzea ez dute gustuko bertakoek (*L'aménagement linguistique dans le monde*, 2019).

⁸ Suitza romandoa Suitzako eremu frankofonoa da.

3. Diglosia

3.1. Zer da diglosia?

Diglosia fenomeno soziolinguistiko bat da, non hizkuntza baten bi aldaera edo gehiago erabiltzen diren egoera desberdinetan. Beraz, hizkuntza beraren bi aldaera izan daitezke (Ferguson, 1959), baina eremu berdinean hitzunek erabiltzen dituzten hizkuntza desberdinei buruz ere diglosia terminoa erabili daiteke (Fishman, 1967). Egoera hori oso ohikoa da hiztun komunitateetan: edonon eta edozein hizkuntza egoeratan aurki daiteke. Diglosia egoera batzuek, gainera, mendeetan zehar iraun dute, esate baterako, arabiera klasikoak eta haren aldaera geografikoek.

Diglosia egoera batean aldaera nagusia eta menpekoa daude, eta aldaera bakoitzak ezaugarri espezifikoak izaten ditu. Lehenik eta behin, funtzioa aldentzen da, hau da, egoeraren arabera bata edo bestea da egokia, gutxitan izanik bi aldaerak aproposak. Bi aldaerek prestigio desberdina dute, eta pentsamendua izan ohi da aldaera nagusia goraiatzea. Literatur tradizioa luzeagoa izan ohi dute aldaera nagusiek, eta miretsi egiten dituzte. Hizkuntzaren jabekuntza aldetik, orokorrean menpeko aldaera izaten da haurrek lehenengo menperatzen dutena, inolako araurik ikasi gabe; aldaera nagusia, berriz, arauen bitartez ikasten da. Estandarizazioa gailentzen da aldaera nagusian: gramatika, ahoskera, ortografia, besteak beste, araututa daude; gramatikaren kasuan, zenbaitetan, menpeko aldaeran ageri ez diren hainbat gramatika arau daude, eta lexikoarekin gauza bera gertatzen da, askotan hitz *etxekotuak*⁹ menpeko aldaeran ageri direlako. Egoera diglosikoak orokorrean egonkorrak dira, eta hainbat mende iraun dezakete.

Diglosia arazo bat bezala ikus daiteke, eta gertatu ohi da hiztun komunitate batean aldaera batek (edo hizkuntza batek) beste batekin oso harreman estua duenean, eta elite batek darabilena bestearen gainean egoera espezifiko batzuetan gailentzen denean (Ferguson, 1959).

3.2. Wallisen egoera diglosikoa?

Suitza alemanduna diglosiaren eredu moduan hartu ohi da, hala zehazten du Fergusonek (1959) bere diglosiaren teoria azaltzean. Aleman estandarren eta Suitzako alemanaren arteko harremana diglosikoa da, aldaera bakoitza eremu eta testuinguru oso espezifikoetan banatzen baita: estandarra testuinguru akademikoan eta dialektoa beste

⁹ Hitz hori erabili dut etxeko egoerak eta gertuko testuinguruak deskribatzeko.

esparru guztietan. Zehaztu beharra dago eguneroko testuinguruetan estandarraren erabilera gaizki ikusita dagoela.

Diglosia horren jatorria aleman estandarraren garapenean Suitzak izandako isolamendu politiko eta erlijiosoan datza. Suitzako diglosia, erabat egonkorra da, baina hala ere, hain daude desberdinduta esparruak, non Suitzako alemana ez dagoen arriskuan. Meune-k (2010: 48) zehazten du diglosia egoera frantsesarekin, italierarekin eta erromantxerarekin ere badagoela.

Wallis kantonamenduan bi egoera diglosiko zehaztu daitezke: bata, aleman estandarraren eta *Walliserdeutscharen* artekoa, eremu germaniarrean (*Oberwallis*); eta bestea, frantsesaren eta frankoproventzera valaisiarraren arteko diglosia, eremu romandoan (Bas-Valais). Beraz, diglosia bat baino gehiago aurki daitezke kantonamenduan (Meune, 2010).

Frantsesaren eta alemanaren artean egoera diglosikoan dagoen zehaztea ez da erraza. Alde batetik, eremu bakoitza oso ondo desberdinduta dago, eta eremu bakoitzak elebakar moduan funtzionatzen du (Lüdi eta Werlen, 2005: 96, 97). Beraz, ez dira testuinguru berean bizi Fergusonek (1959) zehazten duen moduan. Baina egia da, bestetik egitura administratibo berbera dutela kantonamendu berean, eta aztertu zatekeen egoera administratiboan zein pisu duen hizkuntza bakoitzak, nahiz eta *Walliseko* Konstituzioaren arabera parekotasuna egon; esaterako Sierre eta Sion udalerrietako gutxiengo alemanak maiz dira kexu haien hizkuntza-eskubideengatik (Meune, 2010: 62).

Frankoproventzeraren kasuan, alabaina, gertatzen den diglosia hondakinen diglosia deitu daiteke, desagertzeko arriskuan baitago hizkuntza; diglosia hura hizkuntzaren heriotzaren aurreko etapa dela esan daiteke. Nahiz eta ekimenak antolatu hizkuntza sustatzeko, jende gehienak ez du interesik hizkuntzan, eta ondasun moduan ikusten dute batez ere. Ondorioz, diglosia frantsesaren eta frankoproventzeraren artean desagertzekotan dago, frantsesak hartu baitu lekua testuinguru guztietan, eta frankoproventzeraren transmisioa eten baita orokorrean (Meune, 2010).

Kantonamenduko eskualde alemanean, *Oberwallisen*, aldiz, diglosia Suitzako eremu aleman osoan bezala gertatzen da, baina bertako dialektoarekin, *Walliserdeutscharekin*. Biztanleria guztiak hitz egiten du *Walliserdeutsch* ia testuinguru guztietan, eta aleman estandarra eremu akademikoan (Meune, 2010). Horren izena *diglosia medialis* litzateke: medioaren aukeraketak baldintzatzen du hizkuntza forma, hau da, *Schriftdeutsch* idaztean edo irakurtzean erabiltzen da (Siebenhaar eta Wyler, 1997: 22). Paradoxa bat

sortzen da, alegia, eremu frankofonoko eskoletan alemana irakasten da, adibidez Sionen, baina *Walliseko* alemanak ez du zer ikusirik eskoletan irakasten denarekin, beraz ezin dute erabili, eta diglosiak zer nolako eragina duen ikus daiteke (Meune, 2010).

Wallisen bi hizkuntza nagusi daudenez, frantsesa eta alemana, *diglosia territoriala* terminoa erabil daiteke. Bertan, gizarte berean bi hizkuntza hitz egiten dira, baina lurraldea bi eremutan banatuta dago non banakoek hizkuntza bakarra erabiltzen eta hitz egiten duten, hau da, *Oberwallisen* alemana eta Bas-Valaisen frantsesa (Sánchez Carrión, 1974).

4. Walliseko alemana

4.1. Historia eta biztanleriaren garapena


Kantonamendu honen historiak berebiziko garrantzia dauka gaur egungo bertako alemana zein den ulertzeko, eta baita hiztunen izaera ulertzeko garaian ere.

Wallisek egitura administratiboa dauka X. mendetik, konderri moduan eratu zenean. Lehendabizikoz, Helvetiako Errepublikan sartu zen XVIII. mende amaieran, gero errepublika independente bat eratzeko eta 1815. urtetik Suitzaren parte da. XVI. mendetik kantonamenduaren mugak berberak izaten jarraitzen dute Thononeko itunetik¹⁰ (Truffer, 2018). *Wallis* historikoki kantonamendu katolikoa izan da, bertan protestantismoak porrot egin baitzuen, Suitzako beste kantonamendu askotan ez bezala. Nahiz eta batasun erlijiosoa egon, bi talde etnikoen artean beti egon dira borrokak, hau da, frankofonoen eta germanofonoen artean (*L'aménagement linguistique dans le monde*, 2019). *Wallis* zonalde romandoa zen VI. mendera arte, eta orduan hasi ziren lehenengo tribu alemanikoak bertan finkatzen (Meyer, 1992). Baina oreka hori XIX. mendean hautsi egin zen nolabait, industrializazioarekin Sion garatuz joan baitzen, eta hortaz, biztanleria frankofonoa areagotu zen. Hala ere, *Oberwalliseko* familia ugari Bas-Valaisra bizitzera joan eta alemana indartu egin zuten eremu frankofonoan. Baina garai horretan sortu zen pobrezia-erengatik biztanleriaren zati handi batek emigratu egin zuen (*L'aménagement linguistique dans le monde*, 2019).

Migrazioak garrantzi handia izan du *Wallisentzat*, XIX. mendean milaka herritar joan baitziren kanpora, proportzioan Suitzatik baino gehiago. Hasiera batean Ameriketara joaten ziren, baina XX. mendean hori aldatu egin zen, eta beste kantonamenduak izan ziren helmuga (Arlettaz, 2018).

¹⁰ 1569an Savoiako dukeak bere lurraldeak bereganatzeko egindako ituna.

Hala ere, *Wallisen* historia beste migrazio batek ere markatu zuen, walser herriaren migrazioa, hain zuzen ere. Ezinezkoa litzateke kantonamendua ulertzea walser herria kontuan hartu gabe. Walserrak *Walliseko* mendietan bizi ziren herri germanofonoak ziren, eta Erdi Aro berantiarrean mendiak utzi, eta Alpeetako beste txoko batzuk kolonizatu zituzten, esaten da 150 toki kolonizatu zituztela. Lurrak lantzen zituztenez mendi oso altuetan, teknika horiek hedatu zituzten kolonizatutako eremuetan. Gaur egun, aztarna gutxi geratzen dira, gehienak Grisonian eta Austriako Vorarlberg eskualdean, eta haien aztarna nagusia hizkuntza da, gaur egungo *Walliserdeutsch*-a (Waibel, 2013).



Irudia 6: Walser herriaren migrazioa (<http://www.walser-alps.eu/>)

4.2. Inguruko kulturekin harremana

Oberwallis Alpeetako oso eremu malkartsuan kokatuta dagoenez, isolamendu nabarmena jasan izan dute bertako biztanleek. Hala ere, bertako biztanleek harremanak izan dituzte inguruko herriekin, eta hori ikus daiteke inguruko zonaldeetan haien hizkuntzaren aztarnak utzi dituztelako.

Hainbat arrazoiengatik izan zituzten beste herriekin harremanak, eta horietako bat erlijioa zen. Esate baterako, katolikoak zirenez, XVI. mendean merkataritza-harremanak izan zituzten Milan eta Espainiarekin. Aldi berean, Frantziako erregea zerbitzatzen zuten askok, eta horrek Wallis osoan izan zuen eragina; bai Bas-Valaisko frankoproventzarrak eta bai *Oberwalliseko* germanofonoek kultura frantsesa bereganatu zuten, eta bi eskualdeetako eliteak mintzatzeko ziren frantsesez. Bas-Valaisen ordezkapen linguistikoa eman zen horren eraginez, eta frantsesa frankoproventzera

ordezkatzen hasi zen. Ondorioz, Frantziak sekulako eragina izan zuen *Wallisen* (*L'aménagement linguistique dans le monde*, 2019).


Erdi Arotik Antzinako Erregimenaren amaierara arte, kultura korrante asko kanpotik zetozen, eta horiek guztiak eragin kulturala izan zuten kantonamenduan. Alde batetik, Alemania hegoaldetik eta Suitza alemanikotik zetozen eraginak, bestetik, Savoiatik, eta Lonbardia eta Piemontetik ere jaso zituzten eraginak. Eragin horiek eremu frankofono eta germanofonoaren arteko bereizketa sakondu zuten (Cassina, 2018).

Walserrek, lehenago esan bezala, eragina izan zuten kolonizatutako herrietan, esate baterako, Austriako Vorarlberg estatu federalean Walsertal («Walserren Harana») deitzen diren bi haran daude (*Walser in den Alpen*, d.g.). Ikerketa ugari egin dira walserrek izandako eragina ikertzeko, eta Piemonten izandako eragina landu zuten Dal Negro, Dell'Aquila eta Iannàccaro-k (2004). Bertan, agerian utzi zuten Piemonteko biztanleriaren % 2-ak ama hizkuntza gisa duela alemana, zehazki, walser alemana, eta herri batzuetan, esaterako Rimellan, biztanleriaren % 25aren ama hizkuntza zen walserra. Hala ere, walser izandako herri askok gaur egun ondasun historikotzat dute soilik walser herriaren kultura.

4.3. Dialektoa

Nola desberdindu zer den *dialekto* bat, *aldaera* bat edo *hizkuntza* bat? *Aldaera* termino orokor bat da, zeinak izendatzen duen dimentsio ugarian (historikoa, soziala edo geografikoa, esate baterako) erabiltzen den hizkera. *Dialektoa* hizkuntzaren aldaera bat da zeinak muga geografiko bat duen eta hizkuntza estandarrarekin batera sistema linguistikoa osatzen duen. Hiru ezaugarri nagusi ditu: bere sistema linguistikoaren barruko beste hizkerekin ulertzeko gaitasun altua, eremu zehatz bati mugatuta egon ohi da eta idazkera eta gramatika ez daude ofizialki araututa (Bußman, 2008: 131). Dialektoa hizkuntza bihurtzen da erabaki historiko eta politikoen arabera, adibidez, luxenburgerak hizkuntza estatusa dauka, baina Alemanian dagoen luxenburgeraren oso antzekoa den *Moselfränkisch*-a alemaneko dialektoa kontsideratzen da (*Kleiner Sprachatlas der deutschen Schweiz*, 2013; König eta Paul, 2020: 230).


4.3.1. Sailkapena hizkuntza germaniarren artean



Irudia 7: Alemaniako aldaeren mapa (König eta Paul 2020: 230)

Alemanaren aldaerak Mendebaldeko Germaniar hizkuntzen parte dira (Buccini eta Moulton, 2020). Kontinenteko Mendebaldeko Germaniar hizkuntzak bitan banatzen dira: behe-alemana (*Niederdeutsch*) eta aleman garaia (*Hochdeutsch*). Behe-alemanaren parte dira, adibidez, nederlandera edo *plattdeutscha* (*ling.ulstu.ru*, d.g.). Aleman garaia, aldi berean, bi adarretan sailkatzen da: erdialdeko aleman garaia (*Mitteldeutsch*) eta goi-alemana (*Oberdeutsch*). Aldaera horiek Alemanian, Austrian, Liechtensteinen eta Suitzan erabiltzen dira, baita gutxiengoek beste herrialde batzuetan ere, adibidez Italian (Hego-Tirolean) eta Ekialdeko Belgikan. Goi-alemanak aldaera batzuk ditu berean, esaterako bavaria edo alemanikoa (*Kleiner Sprachatlas der deutschen Schweiz*, 2013). Alemanikoa da Suitzan hitz egiten den alemanaren aldaera, hala nola, Austriako Vorarlberg Estatu Federalean, Alemaniako Baden-Württemberg Estatu Federalean, Liechtensteinen eta Frantziako Alsatian, besteak beste (*Muettersprach-Gesellschaft*, d. g.). Suitzako alemanikoa hirutan banatzen da: behe-alemanikoa (*Niederalemannisch*), alemaniko garaia (*Hochalemannisch*) eta alemaniko gorena (*Höchstalemannisch*)

(*Kleiner Sprachatlas der deutschen Schweiz*, 2013). Behe-alemanikoa Basilean hitz egiten da, bestela Suitzan erabiltzen diren aldaerak alemaniko garaia eta alemaniko gorena dira, Samnaun herria salbuespena da, bertan bavariarren aldaera bat mintzatzeko baita (Siebenhaar eta Wyler, 1997: 30). Alemaniko garaia hitz egiten den toki baten eredia Zürich da eta bertan ekialdeko alemaniko garaia hitz egiten da (Baechler, 2017: 58). Alemaniko garaia bitan banatzen da: mendebaldeko eta ekialdeko alemaniko garaia, baina muga ez da oso finkoa ezaugarri batzuk mendebalderago edo ekialderago ematen baitira, esaterako ezaugarri lexikoak edo gramatikoak. Esan bezala, Zürich ekialdeko alemaniko garaia eremuan dago, eta, hiriburua, Berna, mendebaldeko alemaniko garaianean (*Kleiner Sprachatlas der deutschen Schweiz*, 2010: 30). *Walliserdeutschak* edo *Walliseko* aldaerek, ordea, Bernako kantonamenduko mugetan dauden aldaera batzuekin batera, alemaniko gorenaren taldea osatzen dute (Bohnenberger, 1913: 48).



Irudia 8: *Walliserdeutscharen* taxonomia

4.3.2. Hizkuntzaren deskribapena

Walliserdeutsch Suitzako alemanaren aldaera bat da, *Oberwallisen* hitz egiten dena. Gaur egungo *Walliserdeutsch*a alemanaren aldaera bat da, zeinak arkaismo asko dauzkan eta aldi berean aldaketak jasan zituen oso goiz, horien artean garapenean jasan zuen eragin romando nabarmena (Bohnenberger, 1913). *Walserreren* oinarria da

Walliserdeutscha eta, horregatik, biek komunean dituzte oinarrizko ezaugarriak (Schmid, 2005).

Isolamenduak eragin du Suitzako alemanaren dialekto honek ezaugarri arkaikoak izatea, suitzar alemanaren batasuna Suitzako eremu lauetan eman baitzen, eta ondorioz, hortik at geratu zen. Horregatik, *Walliseko* aleman hiztunek, adibidez, Suitzako beste kantonamenduetako jendearekin hitz egitean, darabilten dialektoa apaldu behar dute, besteek uler dezaten (Siebenhaar eta Wyler, 1997).

Walliserdeutsch da *Oberwalliseko* biztanleen eguneroko hizkuntza, eta nederlandera bezain urrunduta dago aleman estandarretik. Baina, *Walliserdeutschak* ez dauka garrantzi handirik *Wallisen*, frantsesa delako biztanleriaren bi herenaren hizkuntza nagusia. Nahiz eta alemana ere izan hizkuntza ofiziala, *Walliserdeutschak* ez dauka estatus ofizialik eta haren ikerketak ez du babesik jasotzen gobernuarengandik, noizbehinka ekimen txiki batzuk baino ez dira babesten.

Oso zaila da hizkuntza bakar bat bezala deskribatzea, ez baitago aldaera uniformerik mendeetan zehar *Oberwallis* bi zatitan banatuta egon delako. Ondorioz, ezaugarri desberdinak sortu dira zati bakoitzean, «ee»/«ää» soinuen desberdinketa esaterako: *schweer* eta *schwäär* (*schwer*). Horregatik, ez dago *Walliserdeutscharen* estandar adostu bat. Hainbat saiakera txiki egin dira, eta hiztegiak sortu dira, hala nola. Hala ere, badaude *Walliserdeutscharen* aldaera desberdinen ikerketak (Schmid, 2005).

Nahiz eta ez egon ezaugarri bat denek egiten dutena, badaude *Walliserdeutscharen* ezaugarri bereizgarri batzuk. Alderak hitz propio asko dauzka gauzak izendatzeko («udaberria» aleman estandarrez *Frühling* da, baina *Wallisen* *Üstag*). Beste bereizgarri batzuk hurrengoak dira: aleman garaiertaineko¹¹ «s» aren eraldaketa «sch»-n «i» baldin badauka aurreko edo hurrengo silabak (*sie* >*schii*). Gainera, bokalak ireki ohi dira, ezpainak asko aldenduz (*Dörfli* >*Deerfji*), «o» eta «u» «ö» eta «ü» bihurtzen dira (*Huus* >*Hüüs*), dieresia erabiliz (Szanyi, 2009: 51), eta izen txikigarria egiteko alemaniko garaieko «-li» beharrea «-ji», «-schi» edo antzekoren bat erabiltzen da: adibidez, *Hündli* («txakurtxo») *Hundji* edo *Hundschi*. Izenen txikigarrien arteko ezberdintasun horren arrazoia, beste hainbat ezaugarri bereizgarriena bezala, da tribu alemanikoak *Wallisera* iristean bertan romandoak bizi zirela, eta hortaz, alemanikoez zerabilten txikigarriak interferentzia jaso zuen (Hofer, 2016).

¹¹ *Mittelhochdeutsch*: Erdi Aro berantiarrean (1050-1350) hitz egiten zen aleman garaia, gaur egungo aleman garaia aurrekaria.

Fonetikoak eta lexikoak ez ezik, bereizgarri gramatikalak ere baditu aldaerak. Adibidez, predikatiboaren erabilera berezia aurki daiteke *Wallisen*, batez ere *sein* aditzaren alboan, eta orduan aleman estandarrean eta Suitzako alemaniko garaian ez bezala, adjektiboa aurrekariaren arabera deklinatzen da (*der Mann ist alt >der Ma ischt aalte*). Aditzak orainaldian pluralean konjugatzerakoan *Wallisen* hiru forma daude: «-e», «-et» eta «-unt». Beste adibide bat da, pluralaren marka «-ini» bitartez egiten dela, esaterako, *Männer* («gizonak») *Manjini* bihurtzen da (*Walliserdialekt*, 2019).

4.4. Alderaketa

Szanyi-k (2009: 52, 53) bere artikuluan bi testu jasotzen ditu, bata aleman estandarrean eta bestea Ried-Brig udalerriko *Walliserdeutschen* aldaeran. Bertan, langile batek bere eguna azaltzen du.

Aleman estandarra	Ried-Brigeko <i>Walliserdeutscha</i>
<p><i>Bauernwerk</i></p> <p><i>Am Morgen, wenn noch der Mond scheint, geht der Bauer auf die Wiese um zu mähen. Das Heu ist reif. Um sechs Uhr weckt er seine Frau aus dem tiefen Schlaf. Sie kämmt sich, flicht ihr Haar und geht in den finsternen Keller. Da holt sie Butter, Käse und Kartoffeln und kocht danach in der Küche das Frühstück. Sie trinken Milchkaffee und essen Brot und Butter dazu. Danach fängt die schwere Heuerarbeit an. Zuerst muss man die Mahden aufstreuen, später wird das Heu zusammengereicht und eingetragen und auf dem Heustock mit der Gabel erneut aufgestreut.</i></p>	<p><i>Püüruarbeit</i></p> <p><i>Am Morgu, we nu der Maanot schiint, geit der Püür uf d Matte fer ga z mäāju. Ds Heww ischt ripfs. Um säggschi weckt är schiiini Frow us dum teifu Schlaf. Schi sträält schich, tretschtot iro Haar und geit inu füschteru Chäller umbri. Da reichotsch Aicho, Chääs und Häärpful und grächot de iner Chuchi ds Früoschtuck. Schi triichunt Milchkaffe und ässunt Brot und Aicho derzüo. De faat de d schwäär Hewwerarbeit a. Z eerscht müoss mu d Made woorbu, spääter zämurächu, iträägu und uf dum Hewwschtock wider mit der Gablu zerzettu.</i></p>

Taula 1: Aleman estandarrean eta Ried-Brigeko aldaeraren alderaketa

Adibidean, beraz, ikusi daiteke *Walliserdeutschen* ezaugarri bereizgarriak zeintzuk diren. Esate baterako, aldaera lexikalak *Matte* (*Wiese*) eta *Aicho* (*Butter*); «sch»-ren erabilera hautematen da testuan zehar «i» bokala atzeko posizioan dagoenean, adibidez, izenordainetan: *schiiini* (*seine*). Gainera, orainaldiko aditzaren pluralaren forma berezia

ageria da: *trinken triichunt* bihurtzen da, eta «-unt» bukaera gordetzen du, hirugarren pertsona pluralaren marka (*Walliserdialekt*, 2019) Gainera, *triichunt*-en kasuan alemaniko gorenaren ezaugarri bat ageri da ere, «n»-a ezabatzen da eta «ch» edo «h» bihurtzen da (*Kleiner Sprachatlas der deutschen Schweiz*, 2010: 258).

Walliserdialekt (2019) proiektuak glosario bat sortu zuen, eta bertan hitzak eta esamoldeak bildu mendebaldeko *Oberwalliseko* aldaera erabilia eredu gisa. Adibidez, hilabeteak izendatzeko moduak bildu dituzte. Ikus daiteke eragin romandoa handia izan dela eta hilabeteen deiturak ere lotura zuzena dutela urtaroarekin.

Aleman estandarra	Mendebaldeko <i>Walliserdeutscha</i>
<i>Januar, Februar, März, April, Mai, Juni, Juli, August, September, Oktober, November, Dezember</i>	<i>Jener, Hoornig, Merzo, Aberello, Meijo, Braachot, Hewwot, Öügsto, Herbschtmonat, Wiimonat, Wintermonat, Chrischtmonat</i>

Taula 2: Hilabeteen izenak

Proiektu horrek berak ere umeentzako hainbat kanta gordetzen ditu, hala nola sehaska kantak. Abestiak kategoria desberdinetan sailkatzen ditu, animalien ingurukoak bilduz, edo dantzatzeko abestiak. Baina, kategoria garrantzitsu bat egunerokotasunean oinarritutako abestiak dira, hau da, jateari, lan egiteari eta lo egiteari buruzko abestiak. Adibide gisa, hurrengo abestia loari buruzkoa da, baina ez dago aleman estandarreko bertsiorik:

Noonni Puppi schlaaf,
uff der Matta löüffunt d Schaaf;
a schuppo schwaarzi,
a schuppo wiissi
wellunt iischers Puppi biissu

Mämmeli, Puppeli schlaaf,
zer Rindermattu weidunt d Schaaf.
(*Walliserdialekt*, 2019)

Glosarioak oso hitz zerrenda luzea dauka, eta bertan ageri dira *Walliserdeutschen* mendebaldeko aldaeran aurki daitezkeen ordainak.

Aleman estandarra	Mendebaldeko <i>Walliserdeutscha</i>
<i>jemand</i>	<i>etlis</i>
<i>Toilette</i>	<i>Abort</i>
<i>Grossvater</i>	<i>Ännivatter</i>
<i>Erde</i>	<i>Hääd</i>

Taula 3: Eguneroko hitzak

5. Gaur egungo Walliseko alemanaren egoera

Walliseko alemanaren hiztunak kantonamendu osoko herena dira gaur egun (Schmid, 2005). Baina ez dirudi hiztunen kopurua gora doanik, baizik eta kontrakoa: frantsesak espazio gehiago hartzen du. Horren arrazoiak gehienbat ekonomikoak dira. Esate baterako, industria turistikoak garapen handia izan du azken urteetan, eta bertan turistek gehienbat erabiltzen duten hizkuntza frantsesa da, nazioartean hedatuago baitago, eta komunikatzeko frantsesaren erabilera, horrenbestez, areagotu da. Industria eta gune ekonomiko indartsuak Bas-Valaisen aurkitzen direnez, frantsesak toki gehiago hartu du, *Walliserdeutschen* kalterako. Muga linguistikoan dauden herrietan, adibidez, frantsesak garrantzi handiagoa hartu du alemanak baino, eta muga linguistikoa pixkanaka ekialderantz mugitzen ari da: batzuen ustez Leuk udalerria linguistikoki Bas-Valais zatekeen. Mugan dauden udalerririk ez dute babes nahikoa sentitzen *Oberwallisen* partez, eta, gainera, Sierre da gertuen duten gune ekonomikoa, zeina alde frankofonoan kokatuta dagoen. Beraz, ez da harrizkoa udalerririk horietan frantsesa izatea hizkuntza nagusia (Meyer, 1992).

Hala ere badaude ekimenak alemana sustatzeko, batez ere Walliseko aldaera. Adibidez, *Oberwalliseko* Eskualdeko Integrazio Bulegoa hornitzaileei laguntzen ari da batera egon daitezen, migratzaileei aleman ikastaroetarako sarbidea errazteko. *Oberwalliseko* erakundeek, tartean heziketa zentroek, aktiboki parte hartzen dute alemaneko ikastaroen proiektu jasagarriak sortzen eta gauzatzen, eta ikastaroak gobernu federalak, kantonamenduak eta udalerriek finantzatzen dituzte integrazio-subsidioaren bidez. Beraz, migratzaileak alemana ikastera bultzatzeko ekimenak daude (*1815.ch*, 2015).

Beste ekimen berezi bat Heidadorf Vispertermineko turismo zentroak gauzatutakoa da: aplikazio bat mugikorretarako. Aplikazioaren izena *Lernen Sie Walliserdeutsch* («Ikas ezazue Walliseko alemana») da, eta turistak dituzte helburu, horrela zonaldea bisitatzerakoan hizkuntzaren gutxiengo ezagutza izan dezaten. Hainbat sailetan sailkatuta dago aplikazioa, behar den hizkeraren arabera, esaterako «jatetxea» edo «sedukzioa eta maitasuna» (*1815.ch*, 2013).

Kantonamenduko hizkuntzaren egoera alde batera utzita, nolako hizkuntza jarrera hartu ohi dute *Walliserdeutscha* mintzatzen dutenek haren mugetatik kanpo? Bernara hiztun ugari joan ohi dira ikasketak egitera, eta Walliseko alemanak ulergaitza izatearen aurreiritzia du. Beraz, maiz hiztunek haien hizkera lausotzen dute hasieratik, Bernako dialektoa bereganatuz, baina, hala ere, batzuek beranduago berreskuratzen dute

Walliserdeutscha. Hala ere, hiztunen generoak zerikusia du hizkuntzarekiko leialtasunean: emakumeek gehiago mantentzen dute *Walliserdeutscha*, hizkuntzarekiko kontzientzia handiagoa izaten baitute. Hala ere, azken urteetan tolerantzia gehiago dago beste dialektoekiko, batez ere dialekto periferikoekiko, zeinaren parte den *Walliseko* alemana (Jakob, 2006).

5.1. Batasuna, estandarra... Zer?

Suitzako eremu alemaneko diglosia egoera dela eta, Suitzako alemana *Schriftdeutsch*arekin idazten da. Baina, ez dago Suitzako alemanak idazteko inolako idazkera uniformerik, eta idatzi behar izanez gero, printzipio bati heltzen zaio: arau fonetikoak errespetatzea (Elmiger, 2019).

Walliserdeutscharen kasuan, gainera, batasun ezak eragiten du ez egotea aldaera bakar eta estandar bat. Eremuaren arabera ezaugarriak (fonetikoak barne) aldatzen dira, eta beraz ezin daiteke *Walliserdeutscharen* idazkera bat batasunik gabe sortu (Schmid, 2005). Baina, badaude ekimen edo proiektu batzuk hiztegi bat eratu nahi dutenak, eta horretarako idazkera bat proposatu. *Walliserdialekt* (2019) proiektuak bere proposamen propioa du idazteko, eta bertan dio entzun eta idazten den moduan idatzi behar dela *Walliseko* dialektoa, eta ez dela aleman estandarraren idazkera kontuan izan behar, Dieth-ek (1986) bere *Schwyzertütschi Dialäktschrift* liburuan proposatzen zuenari kontra eginez. *Walliserdialekten* (2019) proposamenean irizpide batzuk azaltzen ditu: hitz bakoitza independentea da, eta gidoiak eta apostrofeak ekidin behar dira; bokal motzak bokal bakarrarekin idatzi eta luzeak bokalak errepikatuz; diptongoak zonaldeko aldaeraren arabera idatzi, edo «x», salbuespenak salbuespen, «gs» bezala idatzi, besteak beste.

7. Ondorioak

Orokorretik zehatzera egindako ibilbide honetan, nabarmentzen da Suitzak eta bereziki *Wallisek* egoera soziolinguistiko bereziak dituztela. Nahiz eta, teorian eleaniztunak izan, funtsean eta praktikan elebakar modura funtzionatzen dute. Beraz, batek esperoko lukeen diglosiarik ez dago soilik hizkuntza ofizialen artean, salbuespenak salbuespen, hizkuntza bakoitzak oso eremu zehatza baitauka: *diglosia territoriala*. Muga zonaldetan egia da, diglosia eta hizkuntzen arteko harremanak indartsuagoak direla, baina irudi zabalean hizkuntza nagusi bat dago, eta *Oberwallisen* hizkuntza nagusia alemana da. Bertan, diglosia ematen da hizkuntza bereko aldaeren barruan, fenomeno hori Fergusonek (1959) aztertu zuen Suitzako eremu alemanean, eta *Oberwallisen* egoera berdina aurki daiteke, baina, beharbada sakonagoa oraindik: Suitzako alemaneko hizkera gehienak (hizkuntza alemaniko garaiak) beraien artean ulergarriak dira baina *Walliserdeutscha* ulergaitza da alemaniko gorena mintzatzen ez dutenentzat. Horrek arazo bat planteatzen dezake kantonamendu elebidunean, eremu frankofonoan alemana irakasten baita eskoletan, baina irakasten den aleman hori ez dator bat hitz egiten denarekin, eta beraz, komunikatzeko arazo bat suertatzen da, eta frantsesa bihurtzen da aukera nagusia komunikaziorako.

Frantsesaren nagusigo hori demografikoa da egun, baina ekonomikoa ere bada. Gune ekonomiko indartsuak (Agglo Valais) Bas-Valaisen kokatuta daudenez, jendeak horra jotzen du lan bila eta XIX. mendetik gertatzen ari den fenomeno aurrera doa: frantsesa hedatzen ari da Wallisen, eta alemanari tokia kentzen ari zaio.

Beharbada, hizkera ez balego *Schwyzertütschetik* urrunduta alemanak hartu lezake frantsesak duen tokia *Wallisen*. Baina, Alpe hain altuen (4000 metrokoak asko) arteko bailaretan egoteak zonaldea bakartu zuen, eta bakartze horrek eragotzi zuen Suitzako beste alemanaren hizkerekin batasun linguistiko bat ematea. Gainera, alemanaren periferian kokatutako hizkera da *Walliserdeutscha*. Hau da, alemana hizkuntza nagusia ez den beste estatuekin eta kantonamenduekin egiten du muga. Horrela, bakartzeak ez ezik, inguruko herriek (herri romandoak batez ere) eragin handia izan dute hizkuntzan. Horrek ustezko *ulergaitasuna* garatzea eragin du, edo hizkerak hain ezaugarri bereziak garatzea, hala nola, bertako biztanleek identitate sendo bat sortzea.

Hizkera aleman estandarretik hain aldentuta egoteak hainbat auzi planteatzen ditu. Batetik, nola liteke posible nederlanderera edo luxenburgera beste hizkuntza desberdin bat kontsideratzea, baina Suitzako alemana ez, eta are gehiago, nolatan ez da Walliseko

alemana hizkuntza berezi bat, ez bada posible ere alemaniko hiztunen artean elkar ulertzea? Horren erantzuna politikoa eta historikoa izan daiteke, azkenean historikoki alemanaren aldaera bat kontsideratu baita eta alemana ofiziala baita Suitzan eta *Wallisen*, beraz ez dirudi beharrik dagoenik gutxiengo hizkuntza edo antzeko moduren batean izendatzeko. Beharbada, haren estatu propioa balitz hizkuntza bereizitzat kontsideratuko litzateke.

Bestetik, itzulpengintzaren eta interpretazioaren munduan, esate baterako, jakintza eta kompetentzia bereziak beharko lirateke *Wallisen* lan egiteko, hau da, alemana jakiteak soilik ezin du balio, eta *Walliserdeutscha* nolabait menperatzea eskatzen du horrek. Azken finean, beste hizkuntza bat ikastea behar litzateke bertan itzultzaile edo interprete on modura lan egiteko, eta beraz, zail samarra izan daiteke lan horietan jardutea ama hizkuntza *Walliserdeutscha* izan gabe.

Etorkizunari dagokionez, badirudi oraindik *Walliseko* alemanak bizirik iraungo duela. Baina *Wallisen* frantsesak geroz eta espazio gehiago du, aipatutako hainbat arrazoiengatik, horien artean garrantzitsuena ekonomikoa da. Beraz, neurririk hartzen ez bada, alemanak bertan atzerakada handia izan dezake. Gaur egun kantonamendu osoaren heren batek besterik ez du alemana hitz egiten, gutxiengo bat dira, eta gutxiengo hori are gehiago murrizteko arriskua dago, azkenean jendeak pentsatuko baitu askoz baliagarriagoa dela frantsesa erabiltzea. Asimilazio prozesua kantonamendu germanofonoetan ere ematen da, bertako dialektoa bereganatzen saiatzen baitira migratzen duten *Wallistarrak*.

Egoera zein den ikusita, oso garrantzitsua da *Walliseko* kantonamenduak neurri batzuk hartzea bertako alemana gal ez dadin. Lehenengo, beharrezkoa litzateke lege bat non *Walliserdeutscha* babesten den eta tokiko hizkuntzatzat onartzen den (frankoproventzeraren egoera larriagoa denez, berdina egin beharko litzateke). Horrek esan nahi du, *Walliseko* alemanaren erabilera jendartearen aktiboki sustatzea, estandarizazio baten ikerketa finantzatzea eta sustatzea, hizkeraren ikastaroak eskaintzea eta erraztasunak ematea hura ikasi ahal izateko, eta azkenik Bas-Valaisen aleman estandarrean fokua jarri beharrean, bermatzea bertakoek *Walliserdeutscha* ikastea. Horrez gain, oso garrantzitsua da lan aukerak *Oberwallisen* sustatzea eta sortzea, ez bakarrik turismo sektorearentzat, baizik eta industria bertan sortzea, ekintzailatza bultzatu eta, horrela, ekiditea jendeak *Oberwallisetik* kanpo migratzea.

Hizkeraren estandarizazioa da haren biziraupenerako giltza, beste hainbat hizkuntza gutxituekin gertatu den bezala. Euskarak batua sortu arte ez zeukan bermatuta haren

biziraupena, eta horrela izan da beste hainbat hizkuntza txikiren kasuan. Horregatik, premiazkoa da *Walliserdeutscharen* akademia bat sortzea eta horretan inbertitzea. Estandarizazioak irakasteko gida bat emango du, literatura sortzeko tresna izango da, eta batez ere, prestigioa emango dio nekazarien eta mendiko jendearen hizkuntza kontsideratzen den hizkuntzari. Ez badira neurriak hartzen, *Walliseko* alemanaren etorkizuna iluna izango da.

8. Bibliografia

- 1815.ch (2013). “Mit neuem App «Wallisertiitsch lehru»”, *1815.ch*, eskuragarri hemen: <https://www.1815.ch/news/wallis/aktuell/mit-neuem-app-wallisertiitsch-lehru-20130323103000/> [Kontsulta eguna: 2020/05/20]
- 1815.ch (2015). “Deutsch im Oberwallis”, *1815.ch*, eskuragarri hemen: <https://www.1815.ch/news/wallis/aktuell/deutsch-im-oberwallis-20151221-0/> [Kontsulta eguna: 2020/05/20]
- Agglo Valais Central (d.g.). “Une vision pour notre région”, eskuragarri hemen: <https://www.agglo-valais-central.ch/agglomeration/vision-pour-notre-region-9.html> [Kontsulta eguna: 2020/05/11]
- Arlettaz, Silvia (2018). “Der Kanton vom 19. Jahrhundert bis zur Gegenwart”, *Historisches Lexikon der Schweiz*, eskuragarri hemen: <https://hls-dhs-dss.ch/de/articles/007396/2018-01-11/#HDerKantonvom19.JahrhundertbiszurGegenwart> [Kontsulta eguna: 2020/05/10]
- Baechler, Raffaella (2017). *Absolute Komplexität in der Nominalflexion: Althochdeutsch, Mittelhochdeutsch, Alemannisch und deutsche Standardsprache*. Berlin: Language Science Press.
- Berchtold, Elisabeth et al. (2019). *Atlas linguistique audiovisuel du francoprovençal valaisan*. Neuchâtel: Université de Neuchâtel.
- Bohnenberger, Karl (1913). *Die Mundart der deutschen Walliser im Heimattal und in den Außenorten*. Frauenfeld: Huber.
- Buccini, Anthony F. eta Moulton, William G. (2020). “Germanic languages”, *Encyclopædia Britannica*, eskuragarri hemen: <https://www.britannica.com/topic/Germanic-languages/The-emergence-of-Germanic-languages> [Kontsulta eguna: 2020/05/17]
- Bundesamt für Statistik (d.g.). Eskuragarri hemen: <https://www.bfs.admin.ch/bfs/de/home.html> [Kontsulta eguna: 2020/05/20]
- Bußman, Hadumod (2008). *Lexikon der Sprachwissenschaft*. Stuttgart: Kröner.
- Cassina, Gaëtan (2018). “Kultur und Bildung”, *Historisches Lexikon der Schweiz*, eskuragarri hemen: <https://hls-dhs-dss.ch/de/articles/007396/2018-01-11/#HKulturundBildung> [Kontsulta eguna: 2020/05/11]

- Christen, Helen; Glaser, Elvira eta Friedli, Matthias (2010). *Kleiner Sprachatlas der deutschen Schweiz*. Frauenfeld: Huber.
- Christen, Helen; Glaser, Elvira eta Friedli, Matthias (2013). “Arbeitsblätter für den Schulunterricht”, *Kleiner Sprachatlas der deutschen Schweiz*. Eskuragarri hemen: <https://www.kleinersprachatlas.ch/download/unterrichtsmaterial> [Kontsulta eguna: 2020/05/21]
- Dal Negro, Silvia; Dell’Aquila, Vittorio eta Iannàccaro, Gabrielle (2004). *Walser in Piemonte. Una indagine sociolinguistica*. Milan: Centre d’Études Linguistiques pour l’Europe.
- Der Bundesrat (2017). “Verfassung des Kantons Wallis”, eskuragarri hemen: <https://www.admin.ch/opc/de/classified-compilation/19070006/index.html> [Kontsulta eguna: 2020/05/10]
- Dieth, Eugen (1986). *Schwyzertütschi Dialäktschrift: Dieth-Schreibung (Reihe Lebendige Mundart)*. Aarau: Sauerländer.
- Elmiger, Daniel (2019). *Deutsch undeutlich. Eine Begriffsreise durch die vielfältige deutsche Sprache in der Schweiz*. Swiss Academies Reports, 14 (1). Berna: Schweizerische Akademie der Geistes-und Sozialwissenschaften
- Ferguson, Charles A. (1959). “Diglossia”. *WORD*, 15 (2), 325-340.
- Fishman, Joshua A. (1967). “Bilingualism With and Without Diglossia; Diglossia With and Without Bilingualism”. *The Society for the Psychological Study of Social Issues*, 23 (2), 29-38.
- Geschichte der Schweiz* (d.g.). Eskuragarri hemen: <http://www.geschichte-schweiz.ch/> [Kontsulta eguna: 2020/04/20]
- Hofer, Roland (2016). “Der Einfluss von Sprachkontakt und Silbenstruktur auf die Wortbildung”, Elke Hentschel (ed.) *Wortbildung in Deutsche: Aktuelle Perspektiven*. Tübingen: Narr Francke Attempto. (29-39).
- Jakob, Bettina (2006). “Ein Walliser in Bärn – «gääre» oder «gärn»?”. *Uniaktuell. Das Online-Magazin der Universität Bern* [On-line], eskuragarri hemen: https://www.uniaktuell.unibe.ch/2006/ein_walliser_in_baern_gaeere_oder_gaern/index_ger.html [Kontsulta eguna: 2020/05/20]
- Kanton Wallis* (d.g.). Eskuragarri hemen: <https://www.vs.ch/> [Kontsulta eguna: 2020/05/05]
- Kantonales Amt für Statistik und Finanzausgleich (d.g.). Eskuragarri hemen: <https://www.vs.ch/de/web/acf/statistique> [Kontsulta eguna: 2020/05/08]

- König, Werner eta Paul, Hans-Joachim (2020). *dtv-Atlas Deutsche Sprache*. München: dtv.
- Leclerc, Jacques (2019). “Canton du Valais/Wallis”, *L'aménagement linguistique dans le monde*, Quebec: Université Laval, eskuragarri hemen: <http://www.axl.cefan.ulaval.ca/EtatsNsouverains/valais.htm> [Kontsulta eguna: 2020/04/26]
- Lüdi, Georges eta Werlen, Iwar (2005). *Eidgenössische Volkszählung 2000 Sprachenlandschaft in der Schweiz*. Neuchâtel: Bundesamt für Statistik.
- Meune, Manuel (2010). “Francoprovençal, français et (suisse)allemand l'asymetrie linguistique dans les cantons de Fribourg et du Valais”. *GLOTTOPOL*, 16, 49-66.
- Meyer, Jean-Pierre (1992). “Zur Geschichte des Sprachgrenzverlaufs im Wallis”. *Blätter aus der Walliser Geschichte*, 24, 125-154.
- Muettersproch-Gsellschaft* (d. g.). Eskuragarri hemen: <https://www.alemannisch.de/> [Kontsulta eguna: 2020/05/13]
- Sánchez Carrión, José María (1974). “Bilingüismo, Disglosía, Contacto de Lenguas. Hacia una delimitación de conceptos”. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 8, 3-79.
- Scherrer, Yves; Samardžić, Tanja eta Glaser, Elvira (2019). “Digitising Swiss German: how to preprocess and study a polycentric spoken language”. *Language Resources & Evaluation*, 53, 735–769.
- Schmid, Volmar (2005). “Das „Walserdeutsche“ im Oberwallis”. *Progetto Interreg IIIB „Walser Alps“*, 2005eko abenduaren 2/3, Aosta.
- Schweiz Tourismus* (d.g.). “Geografie”, eskuragarri hemen: <https://www.myswitzerland.com/de/planung/ueber-die-schweiz/zahlen-und-fakten/facts-about-switzerland/geografie/> [Kontsulta eguna: 2020/04/10]
- Sensagent (d.g.). “Districts suisses”, *Le Parisien*, eskuragarri hemen: <http://dictionnaire.sensagent.leparisien.fr/Districts%20suisses/fr-fr/> [Kontsulta eguna: 2020/04/10]
- Siebenhaar, Beat eta Wyler, Alfred (1997). *Dialekt und Hochsprache in der deutschsprachigen Schweiz*. Zürich: Pro Helvetia.
- Sion.ch* (d.g.). Eskuragarri hemen: <https://www.sion.ch/sion> [Kontsulta eguna: 2020/05/06]

- Szanyi, Ildikó (2009). “Das Walliserdeutsche als eine interkulturelle Kommunikationsart”. *Sectio philosophica*, 14 (3), 49-53.
- Truffer, Bernard (2018). “Wallis”, *Historisches Lexikon der Schweiz*, eskuragarri hemen: <https://hls-dhs-dss.ch/de/articles/007396/2018-01-11/> [Kontsulta eguna: 2020/05/10]
- Ulyanovsk Unibertsitate Tekniko Nazionaleko Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Saila (d.g.). “Nieder- und Hochdeutsch”, *Ling.ulstu.ru*, eskuragarri hemen: http://ling.ulstu.ru/linguistics/resources/mega_deutsch/DeutscheSprache/Nieder.html [Kontsulta eguna: 2020/05/15]
- Valais.ch* (d.g.). “Glacier du Rhône”, eskuragarri hemen: <https://www.valais.ch/fr/activites/sites-naturels/glaciers/glacier-du-rhone> [Kontsulta eguna: 2020/05/06]
- Waibel, Max (2013). “Walser”, *Historisches Lexikon der Schweiz*, eskuragarri hemen: <https://hls-dhs-dss.ch/de/articles/007950/2013-08-20/> [Kontsulta eguna: 2020/05/12]
- Walliserdialekt* (2019). Eskuragarri hemen: <https://www.walliserdialekt.ch/> [Kontsulta eguna: 2020/05/19]
- Walser in den Alpen* (d.g.). Eskuragarri hemen: <http://www.walser-alps.eu/> [Kontsulta eguna: 2020/05/19]
- Zermatt.ch* (d.g.). Eskuragarri hemen: <https://www.zermatt.ch/es> [Kontsulta eguna: 2020/05/06]